



EUSKAL HERRIKO HISTORIA ILUSTRATUA 3

Joseba Asirón
Martin Alzueta

Nola gertatu zen Matalazen matxinada? Kondairek dioten bezain epiko eta arriskutsua ote zen balea-ehiza? 1808an Donostia arpilatu eta erre zutenean, nola ikusiko zen dena airetik, eta nolakoa zen bertako kale Nagusia suntsitu aurretik? Nola egin zen 1794an 4.000 lapurtarren lekualdatze behartua, Munduteguy jeneralak agindutakoa? Nafarroako Erresuma 1521ean konkistatu ondoko urteak aztoramen eta asaldura sozial eta politiko handikoak izan ziren Euskal Herrian, gatazkaz eta gerraz beteak. Alde batean, herri xehea eta pobrea, gehienbat nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak, eta, beste aldean, eliteak, banatuta, Espainiako nahiz Frantziako inperioen asimilazioaren eta bi estatuen errepresio bolada bortitzen artean. Testuinguru horretan, mota guztietako pertsonaiak sortu ziren: abenturazaleak, nabigatzaile handiak eta baleazaleak, emakumezko lehen idazleak, sorginak eta belgileak, konkistatzaileak, gerrillariak edo matxinoak...

HISTORIA - ILUSTRAZIOA

ISBN: 948-84-17065-62-1

ORRIALDEAK: 128

FORMATOA: 17 x 24

PREZIOA: 19,00 €

Ezohiko ikerketa lanaren emaitza, hitzek ilustrazioei bidea ematen diete obra honetan, irudietan bilduz estreinekoz Euskal Herriko gertaera historiko garrantzitsuenak eta gure historiaren egiazko protagonistei aurpegia jarri. Iraganeko giza paisaiak gure etorkizunerako berreskuratzeko zeregin ohoragarrian urrats sendoa.



JOSEBA ASIRON SAEZ, Iruñea (Nafarroa), 1962. Artearen historian lizentziatu zen Zaragozako Unibertsitatean. Nafarroako Unibertsitatean egin zuen doktoretza, Nafarroako Erdi Aroko dorretxeei buruzko tesi batekin. Hainbat lan kaleratu ditu bakarrik edo elkarlanean, besteak beste, *Nafarroa, amets urratua* (Elkar, 2012) komikia, *50 fechas clave de la conquista de Navarra* (Txalaparta, 2013) eta *Euskal Herriko historia ilustratua* (Txalaparta, 2014) Martintxo Alzuetarekin batera eta *Agur, Iruñea* (Txalaparta, 2014). Nafarroa Bizirik eta Nabarralde elkarteetako kide da, eta zenbait egunkaritan artikulatuak idatzi eta zutabegilea izan da, hala nola, «Adiós Pamplona» atala *Diario de Noticias* kazetan. 2015eko ekainetik aurrera Iruñeko alkatea da.

MARTIN ALZUETA MARTINTXO, Iruñea (Nafarroa), 1972. Hainbat komunikabidetan kaleratu ditu bereizgarri bihurtutako olio-pinturak, hala nola, *Nabarra* eta *La voz de la merindad* aldizkarietan eta *Berrian* eta *Egunkarian*. Horietan guztietan kritika sozial eta politikoa eta umore grafikoa landu ditu, batetik bestera saltoka. 2008an Joseba Asiron ezagutu zuen, eta elkarrekin Amaiurko gaztelua berreraiki zuten marrazki bidez, eta *Amayur. Los últimos navarros* (Txalaparta, 2008) liburuan argitaratu. Lau urte geroago, bi lagun eskutik iritsi zitzaigun *Nafarroa, amets urratua* (Elkar, 2012) komikia eta horren gaztelaniazko bertsioa, eta 2013an, berriz, *50 fechas clave de la conquista de Navarra* (Txalaparta).



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus